

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

5007

234/2017 DEKRETUA, urriaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoak Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluan duen ordezkari bat berriro izendatzeko dena.

Estatuko portuei eta merkataritzako nabigazioari buruzko Legearen testuategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, atariko titularen II. kapituluaren II. artikuluan, interes orokorrekoen artean sailkatutako portuak arautzen ditu. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Bilboko eta Pasaiaiko portuak sartzen dira interes orokorrekoen artean.

Estatuaren lurraldea antolatzeko modua eta lurralde horretako interes orokorreko portuek autonomia erkidegoetan duten eragin ekonomiko eta soziala kontuan hartuta, aipatutako legegintzako errege dekretuak beharrezko neurriak ezartzen ditu erkidegoek portuetako agintaritzaren antolakuntzako egituretan parte-hartze handiagoa izan dezaten. Izan ere, agintaritza-egitura horiek portuak artezten dituzten organoak dira.

Estatuko portuei eta merkataritzako nabigazioari buruzko Legearen testuategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 30. artikuluen 1. eta 2. paragrafoek honela diote:

«1.— Administrazio Kontseiluak honako kide hauek ditu:

(...)

b) Berezko kide bat; kide hori itsas kapitaina izango da.

c) Bokalkopuru bat, 10 eta 13 artekoa. Kanariar eta Balear uharteetarako, ordea, 16 artekoa izango da. Autonomia-erkidegoei edo Ceuta eta Melilla hiriei dagokie kopuru hori ezartzea, baita bokalak izendatzea ere.

2.— Autonomia-erkidegoek edo Ceuta eta Melilla hiriek, c) letran aipatu diren bokalak izendatzekoan, honako irizpide hauek errespetatuko dituzte:

a) Estatuko Administrazio Orokorraren ordezkaritza bokal horietako hiruk eta itsas kapitainak izango dute. Bokaletako bat estatuaren abokatua izango da, eta beste bat, Estatuko Portuak Era-kunde Publikokoa.

b) Autonomia Erkidegoa lehendakariak eta lau bokalek ordezkatzeko dute.

c) Kanariar Uharteetan, kabilido bakoitzak ordezkari bat izango du, eta, Balear Uharteetan ere, kontseilu bakoitzak ordezkari bat izango du.

d) Portuaren zerbitzugunea euren mugartean duten udalek Kontseiluko gainontzeko kideen % 33ko ordezkaritza izango dute. Eraginpeko udalak bat baino gehiago badira, lehenik eta behin ordezkaritza honako hauei egokituko zaie: Portu Agintaritzak administratutako portuari/ei izena ematen dien haiei; eta gero gainontzekoei: zerbitzuguneak eragiten dion udalmugarte-azalerarekiko proportzioan.

e) Kontseiluko gainerako kideen ehuneko 66a, honako hauen ordezkaritzari egokituta izendatuko da: merkataritza-, industria-eta nabigazio-ganberei, enpresa- eta sindikatu-erakundeei, eta portuen arloan garrantzi handia duten sektore ekonomikoei.

Bokalen izendapena, nahitaez, Administrazio Kontseiluan ordezkaritza duten administrazio publikoek, erakundek eta organismoek proposatuta egingo da. Estatutuko Administrazio Orokorren kasuan, Estatuko Portuak Erakunde Publikoko lehendakariak egingo du proposamena.

Administrazio Kontseiluko bokalen izendapenek, lehen paragrafoko c) letran aipatzen direnek, lau urteko indarraldia izango dute. Izendapena berritu ahal izango da, alde batera utzi gabe hurrengo lerroaldean ezarritakoa.

Kontseiluko bokalak kargutik kentzeko erabakia autonomia-erkidegoko organo eskudunak hartuko du, bokal horiek ordezkatzeko dituzten antolakundek, organismoek eta erakundek hala proposatuta.

Horiek horrela, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean eta Estatuko portuei eta merkataritzako nabigazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritz, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren proposamenez, Gobernu Kontseiluak 2017ko otsailaren 14an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.— Iñaki Garcinuño Zabala jauna Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko kide izendatzea berriro, Bizkaiko Enpresarien Konfederazioa ordezkatzeko.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek izendatutako kidea nor den Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko lehendakariari jakinarazten zaion egunetik aurrera izango ditu ondorioak; dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko urriaren 17an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERÍA.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,
MARIA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.